

KONTROL MOZIOA

DBUS-en EGIN NAHI DEN ZERBITZUEN BERREGITURAKETA DELA ETA

Ayem Oskoz Urrutikoetxeak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017eko urriaren 16an Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Behin baino gehiagotan, azken hilabeteetan, entzun dugu hainbat gunetan, Topoaren pasantea eraikiko balitz, Donostiako autobus linea zerbitzuetan aldaketak egin beharko lirakeela, zerbitzu eta ibilbideak ez bikoizteko. Zinegotzi ordezkariak esan izan du aldaketa hauek ez luketela zerbitzu murrizketarik ezta lanpostu galerarik ere ekarriko baizik eta berregituraketa bat (ikus Dbuseko Kontseilu Administrazioaren akta, uztailaren 21koa).

Edozein kasutan harrigarria da oraindik ere zinegotzi delegatuak proposamen zehatzik ez aurkeztu izana. Herritarrek ez dakit, ezta ere, obra horiek iraun bitartean nolako eragina izango luketen Dbus-en zerbitzuetan.

Hau ikusita, talde honek urgentziazkoa ikusten du, batetik, pasantea eraikiko balitz eta obrak azaro hasieran hasiko balira –iragarritakoaren arabera-, Udal Gobernuak argitzea Dbusen berregituraketarik egingo ote lukeen eta, egitekotan, nolakoa izango litzatekeen. Bestetik, obra hauen inguruko informazioa emateko bulego bat ireki denez, eta lan hauek ibilgailuen zirkulazioan eta Donostiako Autobus Konpainian bertan eragina izango luketenez, bertan Udal Gobernuak donostiarrei haiei buruzko informazio zehatza ematea ezinbestekotzat jotzen dugu. Halakorik ez dago, ordea, gaur egun.

Batzordean, zinegotzi delegatuak ez zuen inongo konpromisorik hartu.

Honegatik guztiagatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du

- Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Dbuseko autobus zerbitzuetan berregituraketa egiteko asmoa badu, aurkez diezaiela berau lehenbailehen udal taldeei eta autobus konpainiako langileei.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
eh_bildu@donostia.eus - Tel. 943481027 -

- Udaltzak eskatzen dio Udal Gobernuari pasantea eraikitze lanek Dbusen eta zirkulazioan izango luketen eraginaz herritarrak informa ditzala eta bidea egin dezala pasanteari buruzko bulegoan ere informazio hori eskuragarri egon dadin.

Donostian, 2017ko urriaren 20an

Ayem Oskoz Urrtikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia